Amaitutako guda baten arrastoak

Margaret Thatcherrek behin Ó Fiaich kardinalari galdetu omen zion nola ote zen posible Britainia Handia bakean izatea Alemania eta Frantziarekin, eta gatazkan oraindik irlandarrekin, hainbeste urteren ostean. "Beno, madam –hasi omen zen elizgizona begirada makurtuta, erdi lotsatuta–, kontua da ez daukazula oraindik Alemaniako Ruhr lurraldea okupatuta". Egun, Ostiral Santuko Akordioaren hamargarren urteurrenean, bakea da nagusi Irlanda iparraldean.

Testua eta argazkiak:
LANDER ARBELAITZ

OSTEGUN GAUA BELFASTEN. Bakarlari gaztea, gitarra eskuan, Maddens tabernan giroa berotzen. Jende andana mahaietan eserita, eta beste horrenbeste tabernari lanpetuaren begiradarekin bat egin nahian, garagardo eske. Ostalariaren bizkarrean, Ernesto Che Guevara, Nelson Mandela eta Bobby Sandsen aurpegiak "Askatasunaren Gudariak" dioen danborrean marraztuta. Jendea sartu-aterean ari da. Irteteko ez da arazorik; sartzeko, ordea, txirrina sakatu behar da. Barruan, Tom ilehoria arduratzen da segurtasunaz. Aldamenean duen monitoreari so egin, eta atea ireki. "Aspaldiko gerra garaietan" –eurek dioten bezala– taberna errepublikarrak paramilitar loialisten eraso puntu bihurtu ziren, eta oraindik ere, gehienek orduan hartutako segurtasun neurriekin jarraitzea erabaki dute. Hamalau urte daramatza Tomek bertan lanean, eta ez omen dute inoiz erasorik pairatu. "Hori honengatik da –dio hatz erakuslea atearen alboko monitorera zuzenduz–, ziur egon zaitezke". Bakea sinatu zela hamar urte bete diren arren, oraindik hobe ei da tentuz ibiltzea.

Urteak beharko dira, belaunaldiak ziurrenik, Irlanda iparraldean bizi diren bi komunitate nagusiak (irlandar, errepublikar, katolikoak alde batetik; britainiar, unionista, protestanteak bestetik) guztiz adiskidetu eta iraganeko ezin ikusiak guztiz gainditzeko. Hala ere, pixkana garaiak aldatuz doaz, eta egun, zenbait pertsona eta alderdik bakearen alde erakutsitako konpromiso irmoari esker, Irlanda iparraldean borroka armatuak borroka politikoari egin dio bide. Duela hamar urte, 1998ko Aste Santuan Irlanda hegoaldeko eta Britainia Handiko gobernuek, AEBen laguntzarekin, Irlanda iparraldearen inguruko akordioa sinatu zuten, bertako alderdi politikoen negoziazio luzeen ostean onartuko zuena (DUP kenduta). Ostiral Santuko Hitzarmena izena erabiltzen dute errepublikarrek, Belfasteko edo Stormonteko Hitzarmena unionistek. Izenak izen, iparraldeko sei konderrietako historia gatazkatsuan bakearen mugarririk garrantzitsuenetakoa izan da. Puntu asko adostu zituzten, baina oinarrizkoena, Irlanda iparraldearen etorkizuna bertako biztanleen gehiengoak erabakiko zuela.

Hamar urte luze bete dira orduz geroztik, eta gorabeherak izan diren arren, egoera asko baretu da iparraldeko sei konderrietan. Hala ere, oraindik Belfast hiria Irlanda iparraldeko gizartearen zatiketaren ordezkari izan liteke: hirigunea neutral, hortik kanpora auzo errepublikar eta unionistek ongi bereizita jarraitzen dute, bakoitza bere mural eta banderez 'apaindurik'. Beren artean urtetan pareta erraldoiak eraiki behar izan dituzte, elkarren arteko liskarrak saihesteko. Ironia handiz "bakearen murruak" gisa bataiatu zituzten hauek. Belfasten 41 horma daude auzo ezberdinak bereizteko jarriak.

Bi komunitateen arteko harremana pixkana hobera doan arren, oraindik ez da bakearen murru horietako bakar bat ere lurraren mailara apaldu. Neil Jarman Gatazken Ikerketarako Institutuko zuzendaria da, gatazkak aztertu eta bitartekari ibiltzen den talde bateko burua. Gatazkekin egiten dute lan, hauekin harremana duten arazoekin eta gudatik bakerako trantsizioan sor litezkeenekin. Bere ustez oraindik zenbait murru kentzeko urte batzuk itxaron beharko den arren, dagoeneko zenbait eraitsi zitezkeen, eta hori seinale ona zatekeen bizikidetzarako. Gatazka bizirik izan den urte askotan murru hauek dituzten *check point* itxurako ateak itxita egon dira. Egun gehienak irekita daude eta batzuk oraindik ere gauetan itxi egiten dituzte, gunerik beroenak bereizten dituzten horiek.

Presoak kalean

Motibazio politikoak bultzatutako ekintzengatik kartzelan ziren presoak bi urteren buruan askatzea sinatu zuten Ostiral Santuko Akordioan, guztira 500 inguru, loialista nahiz errepublikar. Gatazkaren konponbiderako aurrerapauso handia, baina eguneroko bizitzan bestelako arazo

2008 KAZETARI BERRIA Lander Arbelatiz
ARGIAhttp://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak/urdaneta-filipinetatik-amerikara-izarren-bidetik
http://www.argia.eus/multimedia/diaporamak/newroz-da-bihar
http://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak/gaeliko-irlandarraren-arazo-eta-erronkez
http://www.argia.eus/multimedia/galeriak/irlandako-mural-apolitikoak
http://www.argia.eus/multimedia/galeriak/irlandako-mural-loialistak
http://www.argia.eus/multimedia/elkarrizketak/irako-kide-ohi-batekin-solasean
http://www.argia.eus/multimedia/galeriak/irlandako-mural-errepublikarrak
http://www.argia.eus/multimedia/diaporamak/brendan-hughesen-hileta
http://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak/la-nua-egunkariaren-egoera-larriaz
http://www.argia.eus/argia-astekaria/2129/irlanda-iparraldea
http://www.argia.eus/argia-astekaria/2124/iparraldeko-herri-aurreratu-hori
http://www.argia.eus/multimedia/diaporamak/ardo-onak-gizonaren-bihotza-pozten-du
http://www.argia.eus/multimedia/diaporamak/erreferendumak-karteletan
http://www.argia.eus/multimedia/diaporamak/nagorno-karabakh-herri-hutsa
http://www.argia.eus/multimedia/diaporamak/transnistria-izoztutako-sua
http://www.argia.eus/multimedia/diaporamak/abkhazia-paradisuaren-bila
http://www.argia.eus/multimedia/diaporamak/hego-osetia-iparra-galduta
http://www.argia.eus/multimedia/diaporamak/hego-osetia-iparra-galduta
http://www.argia.eus/multimedia/diaporamak/hego-osetia-iparra-galduta
http://www.argia.eus/argia-astekaria/egileak/lander-arbelaitz/?orri=20
http://www.argia.eus/multimedia/elkarrizketak/asier-serrano-adiskidantzaren-gorazarrea-da-nobela-hau
http://www.argia.eus/multimedia/elkarrizketak/asier-serrano-adiskidantzaren-gorazarrea-da-nobela-hau
http://www.argia.eus/multimedia/elkarrizketak/asier-serrano-adiskidantzaren-gorazarrea-da-nobela-hau

ASTEKO GAIA

Irlanda Iparraldea

1980. urteko gose grebak eragindako osasun arazoak ezin izan zituen gainditu Brendan Hughes IRAko kide ohiak eta joan den otsailean zendu da.

Gune errepublikarrean bizi diren bost haur hauetatik bakarra da gaelikoz hitz batzuk esateko gai: Clodagh, ezkerretik lehena.

batzuk sortuko zituena, nahitaez. Izan ere, errepublikar zein loialista, preso ohiek ziegak utzi eta gizarte normalizatu batean txertatzeko zailtasunak dituztela salatzen dute zenbait elkartek. Preso errepublikar ohiei eta beren familiei laguntzeaz arduratzen da adibidez, Coiste taldea. Zuzendariak, Michael Culbertek, 16 urte itzalean egin ostean lehen eskutik ezagutzen ditu presoek guztiz gizarteratzeko dituzten zailtasunak.

"Lanpostua lortzeko orduan, oraindik lekurik gehienetan ea kartzelan izan garen galdetzen digute, eta hori arazo handia da guretzat", diosku preso ohiak bere bulegoan. Beren azken urteetako borrokaren helburua itaun hori galdetegietatik kentzea, edo arrazoi politikoak medio preso izandakoei hori ez kontuan hartzea da. "Gu preso politiko ohiak gara, ez kriminalak", utzi nahi izan du argi. Bestetik, problemarik nabarmenenak, bikote arazoak, langabezia eta lan mundurako prestakuntza falta direla dio. "Gu ere gizaki arruntak gara eta gizarte osoak izaten dituen arazoak izaten ditugu". Preso ohi asko 70eko hamarkadan ongi prestatutako jendea zela dio, baina orain, teknologia berriekin, euren trebakuntza zaharkitua geratu da.

Preso loialista ohiekin oso harreman ona dutela dio, eta beren lanaren parte bat haiengana iristea da. "Bake prozesua hasi aurretik guk bagenituen harremanak loialistekin, guk bai baitakigu zein den bortxakeriagatik ordaintzen den prezioa: zauria eta heriotza". Hala, politikariak esparru horretan sartu aurretik, preso ohiak oso aktiboak izan ziren, kartzelan ikasi bide zuten hitz egitearen beharraz.

Gaelikoa malda gora

Neskak panpinekin, mutilak baloiarekin, Philim, Clodagh, Colleen, Katie Rose eta Jane Hego Belfast lasaian, gune errepublikarrean, ibiltzen dira jolasean arratsaldero. Bederatzi urte ditu zaharrenak, lau gazteenak. Nahiko ohikoa da errepublikarren artean seme-alabei irlandar jatorriko izenak jartzea; horren adibide dira lehen hiruak. Kultura zelta bai, musika eta tradizioa barneratuta dute errepublikarrek, baina hizkuntzaren aldeko taldeek oraindik lan handia dute gaeliko irlandarra ikastea ez dela alferrikakoa erakusteko. Horren isla, kalean jolasean aurkitu ditugun haur hauek: bost umetik bakarra joaten gaelikoz irakasten duten eskolara, eta duela bi urtetik –aukeran eman ziotenetik– gurasoen erabakiz, gaztelera ikasten du bertako hizkuntza beharrean, "erabilgarriagoa" dela argudiatuta. Egun, gaelikoz zer dakien galdetuta, batetik hamarreraino zenbatzeko gai dela dio. Hala ere, bada hau ama hizkuntza duenik ere. Estatistikek diotenez, 1991. urtetik 2001era, Irlanda iparraldeko sei konderrietan %18 egin zuen gora gaelikoaren ezaguerak, baina osasun egoera onetik oraindik ere urrun dago oraino hizkuntza gutxitu hau.

Lá Nua , "Egun berria" euskaraz, gaeliko irlandarrez argitaratzen den egunkaririk zaharrena orain 24 urte sortu zuten; azken asteotan berriz, ixtear izan da arazo ekonomikoak medio. Bertako erredakzio buru Connla Lawlorrek azaldu digunez, akziodunekin bilera izan ostean, azkenean lortu dute agintariek iragarkiak jartzea beren berripaperean. Abenduaren 8ra arte

Stevie "Top Gun" McKeag hildako loialistaren omenezko murala Belfasten.

Igande odoltsua gogoratzeko mural errepublikarrak Derryn.

behintzat ziurtatu dute edizioa. "Azaroan, berriz ere negoziazioei ekin beharko diegu, oraindik ere babesa behar baitugu".

Gaelikoaren alde lanik gehien egiten duen Pobal taldearen burua Birminghamen (Ingalaterra) jaioa da. Janet Muller Belfastera etorri zenean hasi zen gaeliko irlandarra ikasten gau eskoletan, nahiz eta lehenago apur bat unibertsitatean ikasi zuen. Berari esatea gustatzen zaion moduan, "oso zaila zen arren, bat-batean hizkuntzak harrapatu egin ninduen eta ezin izan nuen ihes egin". Lanpetuta dabiltza Bai Euskarari ekimenean oinarritutako Tá kanpaina bultzatzen –Tá-k bai esan nahi du bertako hizkuntzan–.

Gazi-gozoa da Ostiral Santuko Akordioak hizkuntzaren alorrean egin duen ekarpenaren gaineko bere analisia. Mullerri ulertezina iruditzen zaio duela hamar urte eta 2006. urteko St. Andrewsko Hitzarmenean "gaeliko irlandarrak ingelesaren status bera izango du" sinatzea eta gero hizkuntza legea behin eta berriz atzera botatzea. DUP alderdi unionistako kideek ez dute bertako hizkuntzari buruzko adierazpenik egin nahi izan, nahiz eta alderdi horretako kide izan Edwin Poots Ipar Irlandako kultura ministroa. Prentsak bildu izan ditu "azken urteotan Irlandako hizkuntza ikaragarri kaltetu dugu atzera" eta "ez dugu inola ere gaelikoa babesteko hizkuntza legerik onartuko; komunitate harremanak kaltetuko lituzke" bezalako bere aipuak. Gales eta Eskoziak beren hizkuntza babesteko legea baduten bezala, orain Londresko Westminster parlamentuan erabaki beharko dute Ipar Irlandako hizkuntza legearekin zer egin.

"Gure hizkuntza da gainontzeko nazionalitateetatik bereizten gaituen elementua, eta baita gure nortasunaren parterik garrantzitsuenetakoa ere", dio *Lá Nua*-ko Lawlor kazetariak, egoerarekin triste samar. Pobal taldeko buruak hizkuntzaren alde politikariek gehiago egin behar luketela uste du: "Irlandako Gobernua ez dago kausa honen alde Ipar Irlandako exekutibari presioa egiteko prest, eta gaelikoaren alde mintzatzen diren alderdi horiek, edo txikiegiak dira, edo hizkuntzaren kausa ez da beren borrokaren gakoetako bat, hori aldatzen laguntzeko".

Egia orbain

17 urte zituen Michael Kellyk 1972. urteko urtarrilaren 30ean. Derrykoa jaiotzez, agintari protestanteen eskutik komunitate katolikoak bizi zuen diskriminazioaz nazkatua, eskubide zibilen aldeko martxara joan zen lagunekin. "Pertsona bat, boto bat!", bezalako oihuak ahoan hil zen. Bere anaia Johnek, 59 urterekin, atzo gertatu izan balitz bezala kontatu digu Michaeli bala batek zulatu ziola bularra. 14 pertsona hil zituz-

Neil Jarman. Gatazken Ikerketarako Institutua.

"Poliziaren onarpena gero eta altuagoa da komunitateko kide batzuen artean. Hau da, orain polizia bera ez da arazoaren parte bihurtzen".

Michael Culbert. Preso ohien laguntza taldea.

"Etorkizuna alde dugu. Errepublikarrok ez gara bake prozesu honen aurka joango, unionistak agian bai, aurreikus dezaketelako galdu egingo dutela".

Adrian Kerr. Free Derry museoa.

"Gobernuak Igande Odoltsua onartuko balu, hurrengo egunetan eragindako heriotza guztien erantzule dela onartuko luke".

ten Britainia Handiko soldaduek *Bloody Sunday* edo Igande Odoltsu hartan. Herri honek inozentzia galdu zuen eguna.

You are now entering Free Derry (Derry Askean sartzen ari zara) ohartarazten du bidaiaria errepide ondoko pareta zuri historikoak. Derryri historia usaina dario. Erdi Aroko herria, harresi dotoreekin, eliza ugarirekin... baina batez ere Igande Odoltsua gogoratzen duten mural ikusgarriekin. Urtetan borroka gogorren eremu izan den Bogside auzoan Free Derry museoa dago, Picassoren Gernika koadroaren bertsio moderno baten aldamenean. "Gure betebeharra hemen gertatua ongi kontatzea da, zuzen, bertako jendeak bizitu zuen bezala; Free Derryn gertatua, Free Derryko herritarrek kontatua", zehaztu digu Adrian Kerr museoko zuzendariak.

Urtarrilaren 30 hartan, eskubide zibilen aldeko martxa baketsua antolatu zuten Derryko bizilagunek. Kopuru zehatzik ez dagoen arren, dokumenturik gehienek 15.000 bat pertsona bildu zirela diote. Inolako armarik gabe zihoazen 14 pertsona hil zituzten soldaduek. Soldaduen hitzei soilik erreparatuta eginiko lehen epaiketa batean "hildako errebeldeak" izatea egotzi zieten hildakoei, eta militarrei tiro egin izana. Urte askotako borrokaren ondoren, 26 urte beranduago, 1998an, Bake Akordioa baino hilabete lehenago, bigarren epaiketa bat irekitzea lortu zuten derrytarrek. "Epaileak zehatzmehatz daki zer gertatu zen, froga eta testigantza guztiak eman dizkiogu. Orain ikusi egin beharko dugu ea hori txostenean paratzen ausartzen den", dio Kerr zuzendariak. "Hemen gertatua ez zen burua joandako soldadu batzuen istorioa, aginduak bete zituzten soldaduena baizik". John Kelly, anaiaren odolarekin zikindutako ume baten kamiseta parean duela, begi bat Londresko epaiketara duela bizi dela dio. "Michaelen izena, eta egun hartan hil zituzten beste 13 pertsonen izenak, azkenean, garbitu egingo dira eta betirako atseden hartuko dute. Eta guk, aldi berean, gure bizitzekin aurrera egin ahal izango dugu behingoz".

Bakearen ekonomia

José Manuel Durão Barroso Europako Batzordeko lehendakariak Irlanda iparraldea munduko gainontzeko gatazkentzat eredu izendatu zuen orain urte batzuk, bakeak gizarte bat eraikitzen zenbat lagun dezakeen erakusteko. Dena den, bakeak laguntzen duen bezala, diruak ere herri baten normalizazioan pisu handia izan dezake. Europar Batasunak azken urteotan ahalegin nabarmena egin du Irlanda iparraldeko sei konderrietan gatazkaren amaiera bermatzeko, eta aurrekontuaren kopuru garrantzitsua inbertitu du bertan. Neil Jarman Gatazken Ikerketarako Institutuko zuzendariak dioenez, "diruak ere bakea ekar dezake".

Stormont, Ipar Irlandako parlamentua Belfasten.

Ostiral Santuko Akordioa sinatu zenetik hamarkada bat igaro denean, herrialdea pixkana eraikitzen ari direla begi-bistakoa da. Zenbait proiektuk Europar Batasunaren babesa dute. Belfast hirian bakea sinatu zenetik %16,9 igo da enplegu-tasa, eta turista kopurua urtero ia %10 doa gora orduz geroztik, horrek ekonomian duen eraginarekin.

"Badira urteak guda hau amaitu zela", dio Martina Anderson Sinn Féineko parlamentariak. "Orain herrialde arrunt bat gara, arazo politikoak konpontzeko politika erabiltzeko aukera dugun beste herri bat, eta oraindik guk nahi duguna lortu ez dugun arren, behintzat ez gara gudan bizi, eta ez nuke nahi gure seme-alabek guk bizitu genuena bizitzerik". Michael Culbert preso errepublikar ohia ere pozik dago gatazka hartzen ari den norabidearekin eta ez du uste inola ere berriz ere armak hartzera itzuliko denik IRA. "Luzera begira egindako estrategia da gurea –dio Culbertek–, Bobby Sands gose greban zen bitartean parlamenturako aukeratua izan zenean sartu zen Sinn Féin politikan. Eta horixe da egun gauden egoerara ekarri gaituena, armarik gabe, soilik politika erabiliz. Beraz, presook hasi genuen bake prozesua".

> "Ostiral Santuko Akordioan onartu zuten gaelikoak ingelesaren status bera izango zuela eta orain ez dute Hizkuntzaren Babeserako Legea onartu nahi"
>
> **Janet Muller, Pobal-eko zuzendaria**

Aurrera begira

Bakearen bidean aurrera egiten duen leku honetan, iragana oraindik oso presente dute bertakoek eta hamaika data omentzen dituzte urtero era guztietako arrazoiengatik. Guda luze baten egunak dira, heriotza askoren datak.

Haizeak gaita-jole zaharraren doinu ahulak Belfasteko Falls etorbide katolikoan behera dakartza. Atzetik, Irlandako banderarekin estalitako hilkutxa sei sorbaldak daramate mantso aurrera. Elizatik atera eta azken aldiz zenbait kaletan barrena ibili ostean, bizilagunek IRAko militante zenduentzat sortutako gunera eraman dute azken omenaldia egitera. Oroitzapenen lorategia irakur daiteke atakaren gainean, burdinazko hizki hotzetan. Ehunka dira Brendan Hughes "The Dark" edo Ilunari azken agurra ematera hurbildu direnak. Preso errepublikarren status politikoa berreskuratzeko 1980. urteko gose greben burua izan zen, harik eta 53 eguneko barauaren ostean eta preso bat hiltzear zela britainiar agintariek protesta uztearen truk engainatu zuten arte. Honen ostean hasi zen mahai gainean hamar hilotz utziko zituen Bobby Sandsek gidatutako gose greba gogorra. 1986tik aurrera kartzelatik libre, baina egonaldiak sortutako gaixotasunen preso, Hughes 59 urterekin zendu da otsail amaieran.

"Biltzeko etxe seguru baten berri emanez dei azkar bat jaso zenezakeen, banku bat lapurtu goizean, autoan soldadu britainiarren bila ibili arratsaldean, lehergailu bat jarri, eta agian pistola bataila bat edo bi izan gauean". Hainbat liburu eta artikulutan bildutako Hughesen hitzak dira horiek, 1971ko bere egun arrunt bat deskribatuz, sasoi hartako gatazkaren gordintasunaren erakusle garbiak. Hitz horiek esan eta 35 urte ingurura, Falls etorbidearen hasierako horma luzea mural ezberdinez dago apaindurik. Denek dute esanahi garbia, baina hala ere, bat da bereziki sinbolikoa. Picassoren Gernika margotua dago, *Berria* egunkariaren laguntzari aipamena ondoko plakan duela. Komunitate arteko elkarkidetzaren sinbolo, muralista unionista eta errepublikar banak, elkarrekin marraztu zuten.

Belfast eta Derry batzen dituen errepideari begiratu eta erraz jabe daiteke bat urteetan aginte unionistak komunitate katolikoarekiko izan duen jarreraz. Belfast inguruan norabide bakoitzean bost bide dituen autopista zabala, pixkana-pixkana mehartuz doa, eta 30 kilometrora, historikoki katolikoak gailendu diren eremura iristean, norabide bakoitzean bide bakarra duen errepide bilakatzen da Irlanda iparraldeko bi hiririk nagusienak batzen dituen suge-bidea. Duela hamar hilabete, DUPeko Ian Paisleyrekin batera Sinn Féineko Martin McGuinnessek Ipar Irlandako exekutibako bigarren postua hartzean Irlandaren batasuna izan zuen hizpide: "Oraindik politikoki ez, baina prestatzen joan behar dugu laster eskuratuko dugun Irlanda baturako. Belfast, Derry eta Dublin lotuko dituen autopista eraikiko dugul". ■

Andrei, Sobiet soldaduaren estatua polemikoaren aurrean.

ASTEKO GAIA

Estoniako errusiarrak

Estatua bat, bi estatu

Estoniako errusiarren integrazio prozesua ez da bere garairik onenak bizitzen ari. Gobernuak beren nortasunaren sinbolo zen estatua lekuz aldatzea erabaki izanak ez du lagundu, ezta herritarrek gau batez hiriaren kontrola hartu eta bertako dendak suntsitu eta lapurtu izanak ere. Hala ere, oroigarriarekin gertatua errusiarren integrazio ezaren azken adierazlea baino ez da, askorentzat.

Testua eta argazkiak:
LANDER ARBELAITZ

"*FASISTI!*" garrasika haserre dabiltza milaka pertsona Estoniako hiriburuko plaza batean. Bertako errusiarrak dira. Poliziak neurriak hartu dituela dirudi, baina ez da hala. Ikusmina zegoen ea zenbat jende bilduko ote zen kontzentrazioan, baina gutxik espero zuen hainbeste izatea bertan batutakoak. Are gutxiagok apirilaren 25eko gau hartakoak, herrialdea subirano denetik gertaturiko istilurik larrienak izango zirela. Pertsona bat hil zen labankada baten ondorioz. Historiak erakutsi izan du lider sinboliko bat gai dela milaka pertsona bere inguruan biltzeko, baina lider bihurtu diren sinboloak ere atzean ez direla geratzen ikusi genuen Estonian. Sobiet aroan eraikitako soldadu baten estatua lekuz aldatzea erabaki zuen Gobernuak, eta Estoniako errusiar askok iraintzat hartu zuten. Hala ere, estatuarekin gertatuak errusiarren integrazio zailtasunak besterik ez ditu azpimarratu.

Regina ilehoria bere amarekin bizi da Tallinngo pisu batean. Andrei beltzaranak ere Estoniako hiriburua du bizitoki. Biek 24na urte dituzte. Bata arkitektura ikasten ari da eta bestea enpresaritzako master bat. Estoniera da Reginaren hizkuntza; Andreik berriz, ama errusiarra duenez, ama hizkuntza errusiera du. Biek diote estoniarrak direla, Andreik ordea, ez du hiritartasunik eta udal-hauteskundeetan baino ezin dezake bozka. Bietako inor ez dago gustura Sobietar Estatuaren aferan gobernuak izan duen jarrera-

Espero ez zen gau baten kronika

Aurreko astean zabaldutako zurrumurruek ziotena egi bihurtu zen apirilaren 25ean. Tallinngo hiria Sobiet soldaduaren estatuaren gainean karpa zuri bat zuela esnatu zen, goizaldeko 6:00etan jarria. Ansip jaunak zuzentzen duen gobernuak bazekien Errusiako Estatua mehatxuka izateaz gain –kentzen bazuten hezur-haragizko soldaduak bidaliko zituztela 24 ordu bertan egon zitezen, adibidez–, Estoniako errusiarrak eta are gehiago, estoniarren %60a estatua lekuz aldatzearen aurka zituela. "Akats politiko handia" izan da zenbait adituren ustetan, baina hauteskunde aurretik hitza emana zuen kendu egingo zutela. Hala, krabelinak eskuetan jendea karparen parean biltzen joan zen poliki-poliki.

Eguerdi partean ehun pertsona inguru zeuden bilduta, batzuk karparen inguruko hesietan arrosak jarri nahian. Polizien bi lerrok babesten zuten hesia eta giroa lasaia zen. "Herrialde garden" bateko biztanleak direla diote harro estoniarrek, horren adibide izan daiteke poliziek izen-abizenak daramatzatela soinean josiak. Orduak pasa ahala, jende kopurua eta tentsioa handitzen joan ziren. 19:00etatik aurrera, plaza eta inguruko kaleak lepo beteta geratu ziren. "Damua" edo "faxistak" bezalako oihuak behin baino gehiagotan entzun ziren Ansip lehen ministroaren eta poliziaren aurka. Honez gain, kontzentrazio baketsua izan behar zuena zapuzten joan zen geroz eta gazte gehiago poliziari harriak eta beirazko botilak botatzen hasi zirenean. Giroa gaiztotzen hasi izanak hainbat pertsona haserretu zituen, batez ere, modu baketsuan protesta egin nahi zutenak, eta horrek manifestarien arteko ika-mikak ekarri zituen.

Hiru orduz, leher egiteko zorian egon zen dena. Tentsio handia nabari zen bai manifestarien eta bai polizien adierazpenetan. Poliziaren jarreran garbi ikusten zen ez erantzuteko aginduak zituztela. Hala ere, hiru orduz etengabe botilak eta harriak jaso ondoren, poliziagizon eta manifestari baten arteko enfrentamenduak plaza hustutzea ekarri zuen. Jendeak gogor erantzun zion poliziaren jarrerari: plazako auto bat hankaz gora jarri zuten eta etxebizitzetako leihoetara harriak jaurtitzen hasi ziren. Poliziak su-itzalgailuak erabili zituen jendea atzera botatzeko. Manifestariak ondoko kalean bildu ziren eta 20 minutuz agenteak harrika hartu ostean, egoeraren kontrola galdu zuen poliziak. Trafikoa moztu, dendetako erakusleihoak hautsi eta denda horietako gauzak erretzen hasi ziren manifestariak. Lapurtu zuten lehen denda alkohol saltokia izateak manifestarien barneko sua bizitu besterik ez zuen egin, eta horrek eragina izan zuen hurrengo orduetan.

Kaleko hotza, bildutako gazteen berotasunarekin nahastu zen. Albistea berehala zabaldu zen eta kaleko isiltasun orokorra, tropelaren "Errusia, Errusia!" bezalako oihuek hausten zuten. Poliziak guztiz galdua zuen kontrola eta hiru orduz hiriko dendak suntsitzen eta lapurtzen aritu zen mila bat pertsonek osatutako taldea. Hurrengo goizean altzari denda bateko langileak negarrez esan zigunez, 200.000 eurotik gorako galerak izan zituzten denda bakar batean, "ez zuten gauza asko lapurtu, soilik bertakoa hautsi eta erre". Hasiera batean denden aurka egitea haserrea erakusteko modu bat izan bazen, etxera eskuak beteta joateko mauka izaten amaitu zuen. Horren erakusgarri izan daiteke bost erakusleiho zituen liburu denda baten leihoak ukitu gabe egotea eta ondoko Hugo Boss arropa dendakoak mila zatitan lurrean barreiatuta; edo lehenik

rekin, eta ez batak eta ez besteak ez dute errusiarren parte handi batek egindako txikizioa begi onez ikusten.

Errusiarren integrazio falta hiruki bat bezala ikus daiteke. Alde batean ezberdintasun ekonomikoak daude: errusiarren artean langabezia tasa bikoitza da gainerako estoniarrekin alderatuta. Bigarren hegalean, hiritartasun eza: errusiarren %40 inguruk ez du inongo hiritartasunik. Eta azpian, estoniar hizkuntzarekin dituzten arazoak: Estonian bizi diren errusiarren erdiak ikasi du estonieraz. Hala ere, hirukia biribil bihur daiteke hiru aldeek etengabe elkarrengan eragina izaten baitute, eta arazo bat bestearen ondorio izaten amaitu. Duela bi hilabete inguru gertatutako liskarrekin, izebergaren puntan besterik ez dira zentratu hedabiderik gehienak.

Historia desadostasun iturri

"Estonian gertatua ulertzeko, Estonia bera ulertu beharra dago", dio Reginak. "Okupazioek, immigrazioak eta independentzia lortzeko borrokak bustitako herria da gurea". Beste herrialde baten menpe egon izan denak ez du askotan anaia handiaren ikuspuntua partekatzen, ez historia interpretatzeko orduan behintzat. Estonia eta Errusiaren kasua ere antzekoa da. 'Okupazio' hitza da korapiloa loturik mantentzen duena. Errusiarren hitzetan, Estonia "bere borondatez" igaro zen Sobiet Batasuneko parte izatera, eta estoniarren bertsioan aldiz, Sobiet Batasunak okupatu zituen.

Estoniari askotan aurpegiratu izan zaio naziek Sobiet Batasunari eraso egin ziotenean, bertako askok –ez denek– nazien tropekin bat egin zutela. Hala ere, argazki osoago bat izateko, aurreko bi urteetan Armada Gorriak 10.000 pertsonatik gora fusilatu eta beste milaka Siberiako *gulag*-etara (Sobietar langileen guneak) bidali zituztela aipatu behar da. Azken hauetatik erdia baino gutxiago itzuli ziren bizirik. Orduko samina gogoan, milaka pertsonak Sobiet tropak Estoniatik ahalik eta urrunen mantentzeari

prezioa begiratu eta zapata pare ezberdinen artetik aukeraketa egitea jendeak.

Hurrengo gauean ere izan ziren istiluak, Estonia ekialdetik errusiarrez betetako autobusak etorri ziren Tallinnera. Mundu osoko hedabide garrantzitsuenetako kazetariak ere hurbildu ziren, gertakari gose. Oraingo honetan, poliziak gogor jokatzeko agindua zuen eta hori kaleko giroan nabaritu zen. Ura jaurtitzeko kamioiak zituzten eta atxiloketa ugari izan ziren. Estoniako poliziaren arabera, errusiar enbaxadak orduko bost euro eskaini zizkien gazteei, istiluak sortzeagatik. Azkenean, bi gauetako liskarren ondorioa lazgarria izan zen: gazte bat labankadaz hila, ia 1.000 atxilotu, 156 zauritu, milaka euroko galera eta atzerapauso handia integrazio prozesuan.

eman zioten lehentasuna, nahiz eta gero ikusi Alemania naziak ere ez zuela Estoniaren subiranotasuna onartuko. Azkenean, Aliatuek II. Mundu Gerra irabazi zuten eta Estonia berriz ere Sobiet Batasunaren parte izatera igaro zen. Gudaren ondorioak argiak izan ziren gizartean: Estoniako biztanleria bosten bat jaitsi zen eta bigarren sobiet aroan ere "Sobietarrekin desleial" izatea egotzita fusilamenduek jarraitu egin zuten. Mende erdi iraun zuen bigarren aro horretan ia milioi erdi bat pertsona joan ziren Estoniako fabriketara lan egitera, gehienak Errusiatik. Azkenean, 1991n Estoniak independentzia aldarrikatu zuenean, hiru biztanletik bat errusiarra zen.

ILUSIO Kreditua EUSKADIKO KUTXA

Ez utzi erdizka zure ilusioak

Kotxea aldatu, zure etxea jantzi... Zure asmoa edozein izanik ere, bete ezazu gure Ilusioen Sailean.

KREDITU ILUSIOA ESKAINTZA

Epea	Interes nominala
1 urte:	%3,93
3 urte:	%5,13
5 urte:	%5,39
7 urte:	%5,50

%5,96 U.T.B.

Irekiera-komisioa: %1
Komisioa aldez aurretik amortizatzeagatik: %0
Komisioa aldez aurretik kitatzeagatik: %0
Gutxieneko zenbatekoa: 9.000€

Eskaintza hori lortzeko ezinbestekoa da Nomina helbideratzea eta Euskadiko Kutxaren bizitza-aseguru bat kontratatuta edukitzea, eta bere Aurrezpen, Aurreikuspen edo Pentsio Planetako beste produktuaren bat.

07-05-21etik aurrera egindako eragiketetarako eskaintza, 10 milioi eurora iritsi arte.
Berriro finantzatzeko eragiketak alde batera utzita.

Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 07/04/05 espediente-zenbakiarekin.

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Raivo Vetik
"Gertatutakoak errusiarrak mobilizatuko ditu, lotura sendoa aurkituko dute"

Gizon serioa da Raivo Vetik. Tallinngo Unibertsitateko Nazioarteko eta Gizarte Institutuko zuzendaria da eta Estoniako errusiarren integrazioari buruzko zenbait liburu idatzi ditu. Tallinngo portu osoa ikusgai duen bulego argitsuan hartu gaitu eta pil-pilean dauden gaiak jorratu ditugu.

Zer garrantzi du hezkuntzak gutxiengo bat integratzeko?
2000. urtean Estoniako integrazio programan hezkuntza puntu garrantzitsuenetakoa zen. Integrazioa belaunaldi gazteenei zuzendua dago eta gazteak hezkuntza sistemako parte dira. Hala ere, badira beste ikuspegi batzuk, sozio-ekonomikoa, politikoa...

Zein da zure iritzia azken 16 urteetako Estoniaren hezkuntza politikaz?
16 urte denbora-tarte luzea da. Alde txar eta onak daude. Sobiet Aroan bi hezkuntza sistema zeuden, errusiarra eta estoniarra, programa ezberdinekin. Independentzia aldarrikatu genuenetik, arazorik handiena sistema bateratzea izan da. Nahiz eta hizkuntza ezberdinetan ikasteko aukera izan, ideologikoki bera da. Orain, sistema berrira trantsizioa hasiko da, pausoka, eta sei urtetan errusiar eskoletako curriculumaren %60a estonieraz izango da. Orain arte dena errusieraz zuten, Estoniar hizkuntza izan ezik, baina sistema ez da estoniar hizkuntza irakasteko gai izan.

Asimilazio prozesuaz kexatu dira errusiarrak.
Kexu nahiko komuna da hori immigrazioa jasandako herrialdetan. Pentsaera nazionalista duten estoniarrentzat, orain arteko politika ahula zen, traizio bat. Gogorragoa izateko eskatzen zuten. Bestalde, errusiarrek diote dagoeneko gogorregia dela. Honela ikusita, Estoniako Gobernuaren politika bi jarrera hauen arteko konpromisoetan oinarritua izan dela esango nuke. Integrazioa estatu baten barruan arazo asko sortzen dituen prozesua da, ezinezkoa da alde guztiak pozik uztea.

Amnesty International erakundeak dio errusiarrak ez direla lehen mailako biztanle bezala hartzen.
Errusiar askok diote ez direla bidez tratatuak eta beren akusazioetako bat da ezin dutela errusiar hizkuntza nahi duten guztietan erabili. Estoniar legeen arabera, estatu hizkuntza bakarra dago eta talde ezberdinek ezberdin begiratzen diote lege honi. Estoniarrek uste dute justifikatua dagoela Estonian estoniera izatea estatu hizkuntza, eta errusiarrek ez dute hala uste. Azken finean, gauza berari nola begiratzen zaion da kontua.

Orokortu badaiteke, zein da errusiarren jarrera estoniar hizkuntzarekiko?

Hezkuntza erreformak jomugan

Estoniera, bere milioi eta erdi hiztunekin, Europako estatu hizkuntzarik txikienetakoa da. 50 urtez Sobiet Batasuneko parte izan ondoren, hizkuntzaren normalizazioa izan zen gobernu berriaren lehen helburuetakoa eta estoniera estatu hizkuntza ofizial bakar izendatu zuen. Hala ere, sobiet aroan estoniarrak errusiera ikastera behartzen zituztenez, errusiarren gehiengoak ez zuen bertako mintzaira ikasi. 1989an, independentzia lortu aurreko urteetan egindako inkesta baten arabera, etorkinen %14ak ikasi zuen estoniera. Egun eskola guztietan irakasten da estoniera eta gutxi gorabehera bertako errusiarren erdiak hitz egiten du hizkuntza. Estatistikek interpretazio ezberdinak ekartzen dituzte, batzuen ustez pozgarria da zenbakia gora doala ikustea, baina beste batzuek beren hizkuntzarekiko errusiarren mespretxuzko jarrera ikusten dute.

Egungo errusiar eskoletan dena errusieraz irakasten dute astean bi ordu izan ezik, eta eskola amaitu ondoren estoniar hizkuntza erabiltzeko gai ez diren gazte ugari dago oraindik. Hori konpondu asmoz, Hezkuntza Ministerioak erreforma bat indarrean jarriko du datorren irailetik aurrera eta errusiar eskoletan pausoka-pausoka estonierazko irakasgai gehiago sartuko dituzte, %60 izatera heldu arte. Erreformak kritika gogorrak jaso ditu errusiar sektoretik. Andrei gaztea estonieraz hitz egiteko gai da, "bai azterketa bat gainditzeko moduan behintzat". Oso haserre mintzatu da erreformaren aurka. "Irakasgai gehiago estonieraz jarrita ez dugu

Tallinn.

Hizkuntzaren jakintza behintzat asko igo da. 1989ko inkesta baten arabera, independentzia lortu aurreko urtean, errusiarren %14ak esan zuen estonieraz hitz egiteko gai zela, eta orain gutxi egindako inkestek diote ia erdia dela gauza. Belaunaldien arteko ezberdintasuna handia da eta banaketa geografikoa ere egin daiteke: ipar-ekialdean gehienak errusiarrak dira eta ez dago estoniar girorik, ezin dute estoniar hizkuntza erabili.

Zer nolako arazoa da Estoniarentzat bertako biztanleen %20-25ak hiritartasunik ez izatea?
Oso handia da, Europar Batasuneko hiritartasunik gabeko populaziorik handiena dugu. Arazo ezberdinak sortzen ditu, estatuaren eta biztanleen arteko erlazioan adibidez. Hiritartasunarekin, eskubide eta betebehar batzuk izaten dira eta dena arautua dago, eta ez bada hala, arazoak etortzen dira. Ikuspuntu subjektibotik ere, herrialdearen parte ez zarela pentsa dezakezu, eta hori ez da integraziorako batere lagungarria.

Nondik dator arazoa?
90eko hamarkadan hartutako hiritartasun politika, aurreko Estoniar errepublikako hiritartasun politika bera da, 1940koa. Urte hartan okupatu zuten Estonia eta lege berriaren arabera, 1940an hiritartasuna zutenei eta beren ondorengoei bakarrik eman zitzaien hau. Baina kontua da garai haietan Estonia etnikoki oso homogeneoa zela (%97 inguru estoniarrak) eta II. Mundu Gerraren ostean, errusiar asko etorri zirela, ia populazioaren %40 izateraino. Mundu Gerra baino lehen 26.000 errusiar zeuden, eta 1990ean 600.000. Lege berriaren arabera, ezin zuten hiritartasuna automatikoki lortu naturalizazio prozesu batetik igaro gabe. Estoniar hizkuntza jakitea eskatu zitzaien, baina gehiengoak lehenagotik ez zuen ikasi, sobiet aroan ez zutelako zertan egin. Hizkuntza ez zekitenek ezin izan zuten estoniar hiritartasuna lortu, beraz errusiarra izan edo ezer gabe bizitzea aukeratu behar izan zuten.

Eta zer nolako egoera dago Lituania eta Letonian?
Letonian arazo berdintsua dutela esango nuke, baina orain isilik dago. Duela hiru bat urte arazo handiak izan ziren, hezkuntza erreforma hasi zutenean. Lituanian ezberdina da egoera, honek 90eko hamarkadan hiritartasuna denei ematea erabaki baitzuen. %15 ziren errusiarrak, eta orain gutxiago. Ez zen kultura nazionalarentzat arazo. Letonia eta Estonian kopuru askoz handiagoak ziren eta jende askok kultura nazional eta hizkuntzaren normalizaziorako mehatxu bezala hartu zituen.

Nola eragingo du Sobietar Soldaduaren leku aldatzeak?
Integrazioan atzerapauso handia izango da, akats politiko handia. Ezin dugu historia aldatu eta orain, joko politikoaren zati bihurtu da, partidu batek baino gehiagok kendu egingo zuela hitz eman zuelako eta zaila da atzera egitea. Honek errusiarrak mobilizatu egingo ditu, orain arte oso zatituak zeuden, parlamentuan sartzea ere ez dute lortu, partidu txiki asko direlako. Orain oso lotura sendoa aurkituko dute.

Etorkizunean zer egin daiteke bi aldeek integrazioa bultzatzeko?
Estoniako Gobernua integrazio programa berriz prestatzen ibili da, eta ni neu ere oso erakarria sentitu naiz programa honetan nire ekarpenak egiteko. Arazoa da asko hitz egiten dela eta gutxi egin. Gainera, integrazioa hain gauza handia da, ezin dela talde txiki askoren esku utzi. Egunerokotasun batean barneratu behar da, ministerioren baten esku, eta ez proiektu txiki askoren baitan.

Eta errusiarrei zer edo zer eska al dakieke?
Estonia honezkero 16 urtez existitu da, eta oraindik hizkuntza ikasi nahi ez duten pertsona kopurua handia da oso. Konturatu behar lukete, lan merkatuan, hezkuntzan... arrakastatsu izan nahi badute, jakitea beharrezko dutela, eta nolabait esateko, gizartean aktiboago izan behar dutela.

hizkuntza hobeto ikasiko, irakasleak dira arazoa, ez dira ongi irakasteko gai", kexatu da. Hezkuntza Ministerioko ordezkari Tatjana Kiilo jatorri errusiarreko estoniarra da. Berak aldaketa oso onuragarri jotzen du eta ziurtatu du helburua ez dela errusiarren asimilazioa. "Ez goaz nortasun zeinuak aldatzera, gure helburua haur guztiei lan merkatuan eta hezkuntzan aukera berak eskaintzea da, eta horretarako bi hizkuntzak erabiltzeko gai izatea beharrezkoa da".

Hizkuntza eta ekonomiaren talka

Hiriburuko eraikin dirdiratsu garaietatik urrutira ikusten dira etxe bloke gris handiz osatutako auzune zabalak. Komunismo garaian eraiki zituzten kanpotik etorritako langileak hartzeko.

Ezkerreko irudian, Tallinngo alde zaharra. Eskuinekoan, hiriburuko errusiar auzo bat.

Bere garaian herrialdeko eraikuntzarik aurreratuenak izan ziren. Ez da gaur egungo kasua. "Etxe bloke erraldoi horiek eraiki zituztenean, bertan bizi zen jendea dirurik gehien zuena zen, eta estoniar 'normalak' ezin zezakeen bertan bizitzeko luxua onartu", dio Reginak etxean entzundakoaren arabera. Egun, txirotasuna begibistakoa da ia kale-kantoi guztietan.

Estoniako errusiarren giza eskubideekin lan egiten duen taldeak behin baino gehiagotan salatu izan du askotan "bigarren mailako hiritar" bezala hartuak direla eta hauen artean langabezia tasa gainontzeko herrialdearen bikoitza dela. Aldi berean, errusiarrak behin baino gehiagotan kexatu dira lanpostu publikoetarako estoniera jakitea eskatzen dietelako. Gobernuak, hizkuntza ikasita lan merkatuan sartzeko aukera zabalagoak izango lituzketela argudiatzen die. Hizkuntza eta ekonomiak talka egiten duen puntura iritsi direla dirudi baltiar errepublikan.

Hiritar ikusezinak

"Estoniako biztanleen %20ak inongo hiritartasunik ez izatea oso arazo handia da guretzat. Uste dut Europar Batasunean hiritartasunik ez duten biztanleen kopururik handiena dugula", dio Raivo Vetik Tallinngo Unibertsitateko Nazioarteko eta Gizarte Institutuko zuzendariak. Hiritartasun eza hizkuntzarekin lotutako beste arazo bat da. Independentzia lortu zutenetik dator kontua. Gobernuak hiritartasuna 1940an Estonian bizi zirenei edo hauen ondorengoei bakarrik ematea erabaki zuen. Honek esan nahi du, bigarren sobiet aroan etorritako ia milioi erdi pertsonek Estonian bizitzen geratu nahi bazuten, hiru aukera zituztela: estoniar hiritartasuna eskatu eta hizkuntza azterketa gainditu, errusiarrarekin bertan bizi, edo inongo hiritartasunik gabe bizi. Hala ere, ordura arte ia inork ez zuenez estoniera ikasi, erdiak errusiarra eskatu zuen eta beste erdiak ez zuen hiritartasunik eskatu. Egun, Estonian bizi diren errusiarren %40ak ez du inongo hiritartasunik.

Hiritartasunik ez izateak hainbat ondorio ditu. Udal hauteskundeetan bakarrik bozka dezakete, eta orain gutxi arte, Europar Batasunean bidaiatzeko ere visa baimena behar zuten. Egun ez dute hori behar. Andrei gazteak ez du inongo hiritartasunik nahiz eta estonieraz hitz egiteko gai den. Politikoen lanean ez du sinesten eta azterketak prestatzen hasi baino "zeregin hobeak" badituelako ez du eskatzen hiritartasunik.

Estoniako gizartean kontuz landu beharreko gai bihurtu da errusiarren integrazioarena. Raivo Vetik irakaslea datozen urteetako integrazio planari ekarpenak egiten aritu da bere aldetik. Bere ustez, ikusi egin beharko da zer gertatzen den, "errusiarrak orain elkartu egingo dira, badute arrazoi bat indarrak batu eta ideia batzuk defendatzeko. Baina hala ere, gobernuak azken aldian hartutako erabakiek gizartea zatitu egin dute eta hori ez da ona integraziorako". Gobernuak "hitz gutxiago eta lan gehiago" egin behar lukeela dio, eta Estoniako errusiar asko "estoniar hizkuntzarekiko baikorragoak" izan beharko luketela.

"Ez gara garairik onenak bizitzen ari", dio burumakur Reginak. "Lehenik eta behin, gobernuak herritarron nahia aintzat hartu gabe sua piztu du, eta bestetik, Moskutik egin duten kanpaina interesatuari bakarrik erreparatuz, Mendebaldeko zenbait hedabidek faxistatzat hartu gaituzte". Jatorri errusiarreko Andrei ere ez da oso baikorra. "Duela bi hilabete gertatuak bazterrak nahastu besterik ez ditu egin. Estatua mugitu zutenean protesta egin genuen. Ordura arte dena ondo zihoan, gobernuak ikusi baitzuen batzeko ahalmen handia dugula, baina gero, batzuek gobernuaren aurka beharrean errurik ez zuten herritarren aurka eginez amaitu zuten gaua eta euren erruz, Estoniako errusiar guztion irudia asko zikindu da".

Estoniako Gobernuak eta errusiar gutxiengoak beren arazoak konpontzeko nahia izango balute, apika konturako lirateke denen artean heldutako akordioak sina ditzaketela. Behin baino gehiagotan gurutzatuko ziren kalean Regina eta Andrei, batak bestea nor den jakin gabe. Egunen batean, kalean gelditu eta solasean hasiko balira, agian konturatuko lirateke estoniarren eta bertako errusiarren arteko ezberdintasunak ez direla hain handiak. ■

http://www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, liskarren inguruko bideoa.

Danimarka



Iparraldeko herri aurr

Daniar guztiek dute hezkuntza eta osasunerako zaintza osoa doan izateko eskubidea. Gazteek 18 urte egitean gurasoen etxea uzten dute, eta beren independentzia bermatzeko, Gobernuak hilean 680 euro ematen dizkie. Gizarte eta ingurumen politiketan munduko aurrerakoienetakoa da. Mathias gaztearen ohiko egun bat oinarri hartuta, Danimarka eta Euskal Herriaren arteko ezberdintasunak agerikoak dira.

LANDER ARBELAITZ
Argazkiak: Andreas Bro

eratu hori

MATHIAS STIGSGAARD daniarra da. 22 urte ditu eta kazetaritza ikasketak medio 300.000 biztanleko Århus hirian bizi da. Hala ere, jatorriz Hørlshomgoa da, Kopenhagetik iparrera jo eta kilometro gutxira dagoen herrikoa. 29 urteko arrebak arabieratik daniar eta ingelesera poesia itzuliz bere kasa egiten du lan. Aita negozio gizona du, ama irakaslea eta duela bost urtetik bananduak daude.

Eguzkiak gortina meharreko leihoa topatu aurretik jaiki ohi da Stigsgaard eskolara joateko. Danimarkako Kazetaritza Eskolan bigarren maila egiten ari da, eta etorkizunean prentsa idatzian lanean ikusten du bere burua. "Unibertsitateko ikasleak noiz hasten diren ikusita, nik gazte ekin diet goi mailako ikasketei". Egia da. Danimarkan gazteek eskola amaitu ostean urte batzuk hartzen dituzte beste gauza batzuk egin eta etorkizuna nola bideratu ondo erabakitzeko. Batez beste, 23 urterekin hasten dute unibertsitatea, presarik gabe. Stigsgaardek 18 urterekin eskola bukatu eta sos batzuk aurreztu asmoz, lan egitea erabaki zuen. Sei bat hilabete beharra bilatzen eman, eta beste horrenbeste egin zituen supermerkatu batean jardunean.

Soldaduska egitea egokitu zitzaion urtebete geroago. Azterketa fisikoa gainditu ostean, zozketa bidez erabakitzen dute nork joan behar duen –normalean joateko gai direnen hirutik bat–. Norbaitek ez badu zerbitzu militarra egin nahi, suhiltzaile edo gizarte-lanak egiteko aukera du soldata baxu baten truke, baina urtez urteko datuak ikusita, inor gutxik egiten du aukera hori. Soldadugaiei zenbait abantaila fiskal ematen dizkiete: hilean zergaz kanpoko 10.000 koroako daniarreko soldata (1.300 euro), beren kasa bizi badira beste dirulaguntza batzuk, eta salbuespenen bat kenduta, herrialde osoko garraiobideetan doan ibiltzeko aukera. "Esan liteke soldaduska egiten dutenak ez direla batere txiroak hemen", dio Stigsgaardek. "Hamar hilabetez aritu nintzen horretan eta amaitzean kazetaritza ikasketak hasi nituen, patrika ondo berotuta".

Estatua itsulapiko

Daniarrak ulertzeko, beren Ongizate Estatuaren ideia konprenitu beharra dago. Txerri itxurako eltzeitsuak nola, halako papera du honek. Herritarrek, hilero-hilero, beren diruaren zati bat bertan gordetzen dute, beharra etortzean hor izango dutela jakiteak ematen duen lasaitasunarekin. Honela, Danimarkan bizi diren 5,5 milioi herritarrek, batez bestekoa eginda, beren diru sarreren %55 ordaintzen diote Estatuari. "Pozik zaude sistemarekin?", itauna. "Bai, oso", daniar gazteak. "Kanpotik kontraesana irudi lezake zergetan soldataren erdia utzi eta pozik egotea, baina niri oso positiboa iruditzen zait herrialde honetako biztanle guztiek edukitzea hezkuntzarako eta osasunerako atea zabalik, pobre ala aberats, langabe edo okupatu, denek berdin". Sorbaldarik indartsuenak dira pisurik astunena eramateko ardura dutenak, eta bide batez, ahulenei aurrera egiten laguntzen dietenak.

Bertako biztanle guztiek eskubidea dute haurtzaindegi, eskola, unibertsitate, ospitale

Goitik behera: Stigsgaard bere gelan egin berri dituen azterketen emaitzak ordenagailuan begiratzen. Entrenamendu saioaren ostean taldekideak garagardoaz gozatzen. Plastikozko boltsarik ez, eta erosketak bizkarreko zorroan sartzen. Eta Stigsgaard telefonoz eskolako lagunekin berriketan.

eta zaharrentzako zaintza osoa doan izateko, beste zerbitzu batzuen artean. Eskola, unibertsitate eta ospitaleen %95 publikoak dira eta pribatu apurrek bezain zerbitzu ona edo hobea eskaintzen dutela ziurtatzea Estatuaren betebeharra da. Hau guztia daniarrek ordaintzen dituzten zerga altuek ahalbidetzen dute, baina Estatuari ordaintzen diotena bakoitzaren soldataren arabera egokitzen da. Kontuan hartzekoa proportzioan, diru sarrerarik baxuena dutenek %40 inguruan ibiltzen direla, eta aberatsenak %60 ordaintzeraino irits daitezkeela.

Gini indizearen arabera, munduan bere irabaziak egokien banatzen dituen herrialdea da aztertzen ari garena. Formula matematiko hau lurralde bateko irabazien banaketaren (des)berdintasuna neurtzeko erabiltzen da. Emaitza 0 eta 1 artean izaten da, non 0 berdintasun perfektua litzatekeen –biztanle guztiek irabazi berdinak– eta 1 desberdintasun perfektua –pertsona batek irabazi guztiak, eta besteek ezer ere ez–. Danimarka da berdintasunean liderra. Frantziako Estatua 32. postuan da eta Espainiakoa 43.ean. 2004ean Eustatek EAEko Gini indizea kalkulatu zuen eta 0,57ko emaitza atera zitzaien, munduko herrialdeen zerrendan 114. postuan, Nigeria, Txina, Bolikosta, AEB eta Mexiko bezalako herrialdeen atzetik.

Baina itzul gaitezen Stigsgaardengana. Pedalei eraginez ordu laurdenean egiten du etxetik eskolarako bidea. Oinarrizko garraiobidea da bi gurpilduna herrialde honetan, biztanleen artean oso hedatua. Erraz ikus daitezke dotore jantzitako emakume edo gizonak, maletatxoa atzean lotu eta bizikletaz lanera bidean. Kaleak txirrindularientzat prestatuta daude, zentzu bakoitza karrikaren alde banatan, ongi bereizita. Eskolako atarian, hanka luzatu, atzeko gurpilean giltzarrapoa jarri eta tente uzten dituzte, bata bestearen ondoan, ehunka bizikleta ikasle eta irakasleek. Ez dute farolari lotu beharrik bueltan hor izango dela ziurtatzeko. Bi arrazoi nagusi horretarako: bat, gutxitan izaten dira bizikleta lapurretak; eta bi, ez legoke farola nahikorik guztientzat.

Hala ere, ez gaitezen engaina, autoak ere ibili badabiltza Danimarkako kaleetan. Hori bai, Euskal Herriarekin konparatuz, gutxi dira berebila duten 30 urtetik beherako gazteak. Eustatek bere webgunean eskegitako datuen arabera, 2004an Danimarkan 1.000

biztanleko 355 auto kalkulatu zituzten, EAEn 417 eta Nafarroan 460. "Nik, hasteko, ez dut behar; baina nahi izango banu ere ezingo nuke ordaindu, Danimarkan autoak oso garestiak dira". Berezko balioaren %250 arte igo dakieke prezioa zerga ezberdinengatik, eta erregaia garestitu zutenetik, bi aldiz pentsatu behar du daniarrak autoa erosi aurretik. Baina zergatik ez Alemaniatik erosi eta etxera eraman merkeago aterako bazaie? "Egongo da hori egiten duen jendea, baina denok hori egingo bagenu, sistema hau hankamotz geratuko litzateke; ditugun abantaila batzuk moztu egin beharko lituzke Gobernuak". Salbuespenak salbuespen, orokorrean zuzena da daniarra, eta edozein motatako iruzur egitea, autobuseko txartela ez ordaintzea adibidez, ez da harro sentitzeko ekintza.

Politiken egunkariaren arabera, daniarrek urtean 90 litro garagardo edaten dituzte batez beste eta alkoholak eragindako heriotzen kopurua nabarmen da altuagoa Euskal Herriarekin alderatuta

Garagardoaren erritmora

Øl. Hitz erraza, kanpotarrei azkar irakasten dieten horietakoa. "Ül" ahoskatuko genuke Euskal Herrian. Garagardoa. Tuborg markakoa bada, hobe. Danimarkako kulturaren parte, dudarik gabe. Beste ele batekin ere etengabe egingo du topo atzerritarrak. *Skøl.* Topa.

15:00ak partean eskolatik irten eta kaleak afixa komertzialez josiak aurkitu ditu Mathias Stigsgaardek. "Marketin kontua da –kexu da– urtero gero eta goizago betetzen dituzte hiriko paretak garagardo konpainiek". Gabonak azaroaren 1ean hasi ziren bikingoen herrialde horretan. Amaitu, berriz, otsailaren ean. Garagardoak markatzen du *tempoa* hemen ere. Zerbeza berezia ateratzen dute urte sasoi honetan, ohikoa baino gogorragoa, hotzari aurre egiten laguntzeko: *Juleøl.* "Zer edango dugu Gabonetan Gabonetako Garagardoa izenekoa ez bada?", dio ilehoriak irribarrez. Aste Santua ere aitzakia ona izaten da *Påskeøl* garagardo berezia atera eta urrezko edari hau maite duen herrialdeko etxe gehienetako hozkailuak betetzeko.

Azterketen buruhausteak ahaztea xede, Xabi Alonsoren Liverpooleko atorra soinean joan ohi da Stigsgaard futbol entrenamendu saioetara. Jokalaririk gazteenetakoa izateaz gain, entrenatzaile ere bada. Astean bi saio izaten dituzte, baina helburua lagun-giroan kirol pixka bat egitea dela ez dute ahazten. Mailarik baxuenean jokatzen duten taldeen artean bilatu behar da eurena: *Åben Modus.* "1,95 metrotik gorako zazpi jokalari ditugu, ligako talderik altuena gara, baina ez dugu gol aukerarik sortzen", dio penatua entrenatzaileak. Entrenamenduan izerdi pixka bat bota ostean, garagardoa edateko garaia sakratua da taldekideentzat. Ura baino hobe sartzen omen zaie garagardoa kirola egin ostean, nahiz eta ordurako epel-epel eginda izaten den. Zerrenda batean zehaztua dute entrenamendu bakoitzera kaxa bat nork eraman behar duen, eta entrenamendu saiora ez joateak gehiegi axola ez duen bezala, ez du barkamenik garagardoa eraman behar duenak piper egiteak.

Gini indizearen arabera Danimarka da munduan bere irabaziak hiritarren artean berdintasun handienez banatzen dituen herrialdea. EAE 160. postuan legoke

Txantxak alde batera utzita, alkoholarena izan liteke herrialde honen itzalik luzeenetakoa. *Politiken* egunkariak otsailaren hasieran ateratako artikulu batean zioen daniarrek urtean 90 litro garagardo edaten dituztela batez beste. 'Batez beste'-k esan nahi du herrialdeko biztanle guztiak sartzen direla hor, atera kontuak. Honek munduko garagardo kontsumoaren zerrendan zortzigarren postuan jartzen ditu. Halaber, azken 40 urteotan ia bikoiztu egin dira zirrosi kasuak egunkari beraren arabera, eta alkoholak eragindako heriotzen kopurua nabarmen da altuagoa Euskal Herriarekin alderatuta.

Ekologia ardatz

Azken orduan, Stigsgaard ez da esku hutsik joaten etxe ondoko supermerkatura asteko erosketa egitera. Gehienek bezala, plastikozko poltsa hutsak bizkarreko zorroan dituela, azken bisitaz geroztik hustu dituen botila eta latak eramatera ere joaten da. Makina berezi batzuk izaten dituzte, ahozabal, eta bertan edukiontzi hutsak sartu ostean, koroa danimarkar bat ematen dute bueltan bakoitzarengatik (15 euro zentimo inguru). Edaria erostean ordaintzen da edukiontzia eta birziklatzen den momentuan hartzen dirua bueltan. Birziklatzen ez duenari ez diote diru-

Kultura baten arauak

Janteloven edo Janteko Legea Aksel Sandemose idazle norvegiar-daniarrak 1933. urtean nobela batean idatzitako arau bilduma etikoa da. *Iheslari bat bere mugez gaindi* liburuan XX. mendearen hasierako bere jaioterriko bizitzaren erretratua egin zuen. Hala ere, herri txiki gehienek dituzten antzekotasunak biltzen dira.

Hamar dira mandamenduak, baina denak "Ez pentsa berezia zarenik" jarreraren bariazioak izan litezke. Liburuan, sekula inon idatzi gabeko, baina denek betetzen dituzten arau hauek urratzen dituzten herritarrei gaizki begiratzen diete gainontzekoek, bertako bizimoduaren aurka doazela argudiatuta. Arau hauek daniar, norvegiar eta suediar kulturak zipriztindu zituen, eta besteak baino hobe edo inteligenteagoa dela pentsatzen duen jendea bereziki gaizki ikusia dago herrialde haueten.

1) Ez pentsa berezia zarenik.
2) Ez pentsa gure mailan zaudenik.
3) Ez pentsa gu baino azkarragoa zarenik.
4) Ez pentsa gu baino hobea zarenik.
5) Ez pentsa guk baino gehiago dakizunik.
6) Ez pentsa gu baino garrantzitsuagoa zarenik.
7) Ez pentsa ezertan ona zarenik.
8) Ez egin barrerik gutaz.
9) Ez pentsa inori axola zaionik zer gertatzen zaizun.
10) Ez pentsa ezer irakats diezagukezunik.

Janteko Legeak egungo daniar kulturan zenbaterainoko eragina duen frogatzea zaila da. Dena den, soziologoek eragin hori baserri giroko guneetan mantentzen dela diote, eta hiriguneetan askoz ere txikiagoa dela.

rik itzultzen. Ordainlekuen ondoan, erosi nahi dituenarentzat, plastikozko poltsa sendoak izaten dira. Zorroak ordaindu egin behar direnez, jende gehienak aurretik erabilitakoak eramaten ditu dendara, behin eta berriz. Tankera honetako zenbait neurri hartzen joan dira azken urteotan Eskandinaviako gobernu ezberdinak, eta pixkana-pixkana ingurumenarekiko errespetuan erreferentzia bihurtu dira herrialde nordikoak.

Ez da harritzekoa supermerkatu bat eskura ez eta kaleko zakarrontzien inguruan garagardo lata hutsak ikustea. Eskaleek gauero hirietako kaleak zeharkatzen dituzte, begirada zorrotz, janarekin truka ditzaketen edukiontzien bila. Hauen egoera buruan, zaborrontzien oinetan uzten ditu parrandan dabilen jendeak edukiontzi hauek, *biltzaileek* ez ditzaten barrutik atera beharrik izan. Astebiru eta egun berezietan zientoka edukiontzi biltzera iristen dira eskekoak.

Gazteen subiranotasuna

Mathias Stigsgaardi bezala, 18 urte betetzen dituztenei Gobernuak hilean 5.000 koroa danimarkar (670 euro inguru) ematen dizkie beren kasa bizitzeko aukera izan dezaten. Daniar kulturaren parte da gazteek 18 kandelei putz egin eta gurasoen etxetik alde egitea, baita hiri berean bizitzen jartzeko bada ere. "Erdia baino gutxixeago etxea ordaintzen xahutzen dut, eta bestea, janaria, telefonoa eta gainontzeko gastuetarako erabiltzen dut". Azken inkesten arabera, Euskal Herrian, aldiz, 18 eta 34 urte arteko gazteen hamarretik sei oraindik gurasoen habian bizi dira. EAE eta Nafarroan 210 euroko laguntzak ematen hasi dira gazteek beren kasa bizitzen duten arazoa konpondu asmoz. Ipar Euskal Herrian, zenbait baldintza betez gero, 300 euro inguru ematen zaizkio hilean ikasleari.

Daniar nerabeen independentzia bermatzeko, etxebizitza-sistema konplexua ere garatu du Estatuak urteetan. Hirietako etxebizitza hutsak erosteaz gain, gazteentzat propio pentsatutako etxebizitza blokeak eraiki dituzte gobernu ezberdinek. Bizileku hauen kontrola eramateko herri bakoitzak Ikasleen Etxebizitzarako Kontseilua du eta gazteei etxebizitza modu onean aurkitu eta alokatzea da bere helburua. Stigsgaardi, bulego honetara jo zuenean, 30 metro koadroko bizilekua aurkitu zioten. Bertan, sukaldea eta komuna lehendik ezagutzen ez zuen pertsona batekin partekatzen ditu, eta bakoitzak bere gela du. Honelakoak dira gune honetako etxe guztiak, binaka bizitzeko eginak. "Oso pozik bizi naiz hemen,

ARGIA

ARGIA

Aurreko orrian, Mathias Stigsgaard bere etxeko gelan. Gobernuak gazteentzat propio eraikitako eraikinetako batean bizi da. Lerro hauen gainean, ezkerrean, Århus hirian etxe daniar tradizional bat; eta eskuinean, Kopenhage hiriburuko etxe koloretsuak.

ez dut gehiago behar, gainera, ondoko bizilagunekin oso harreman ona dut eta askotan biltzen gara han edo hemen".

Bizilagunekin ez bezala, Stigsgaard eta bere pisukideak ez dute harreman beroegirik. Batak daniarren ordutegiari men 17:00etan afaltzen du, kazetaritza ikasleak berriz "oso berandu", 19:00ak inguruan. Afaldu ostean bakoitza bere gelan sartzen da. "Ordenagailu bidez, bakoitzak gure lagunekin egiten dugu hitz, ez gara bakarrik geratzen". Euskal Herriko begiekin ikusita, hotzak dira daniar asko eguneroko harremanetarako. "Onar nezake indibidualistak garela, askotan barnera begira bizi gara, gutxitan erakusten ditugu gure sentimenduak kanpora". Stigsgaarden hitzetan, askori ez zaie aitortzea gustatzen, baina Janteko Legea subkontzientean daramate –ikus aurreko orriko koadroa– eta konturatu gabe behin eta berriz erakusten dute hori, beti ere daniar gaztearen ustez.

> Gobernuak urteetan hirietako etxebizitza hutsak erosi eta gazteentzat pentsatutako blokeak eraiki ditu, hauei prezio onean alokatzeko

Haurdunaldiak bultzatuz

Egun, Euskal Herria da ume gutxien jaiotzen den Europako lekua. Orain ia 30 urte Danimarka zen kontinenteko jaiotze-tasarik baxuena zuen herrialdea. Horri buelta eman eta bikoteak umeak izatera animatu asmoz, Gobernua zenbait neurri hartzen hasi zen. Estatistikak ikusita, neurri hauekin etengabe behera zihoan jaiotze tasa berriz ere gora tentetzea lortu du. Gaur egun, amei 54 asteko amatasun baja eta aitei zortzi astekoa ematen zaizkie, ume bakoitzeko hilero ematen dituzten laguntzez gain. Gainera, gurasoek ez dute haurtzaindegiagatik ordaindu behar.

Udaberrian sartu arte egunak motz dira eta 19:30erako kale-argiek argitzen dute gau itxia. Egun gogorra izan ondoren, ohera joan aurretik, hurrengo eguneko lanak egiten ditu kazetaritza ikasleak. Irribarrea ahoan, noizean behin *The Simpsons* telesaila ikusten du. Europako herrialde askotan bezala, beti film eta telesaioen bertsio originalak daniar azpitituluekin emititzen dituzte. "Txiki-txikitatik ohitzen bagara gustukoen ditugun saioak ingelesez ikusi eta daniarrez irakurtzera, belarria finduz goazela dudarik ez egin". Mathias Stigsgaardek hainbat hizkuntza menderatzen ditu: daniera eta ingelesa ama hizkuntza gisa. Suedieraz eta norvegieraz ere moldatzen da, bai ulertu eta baita hitz egiteko ere, baina ez aurrekoak bezain ondo. Hala ere, aipatu behar da daniera, suediera eta norvegiera familia berekoak direla, eta askotan, herrialde bakoitzeko pertsona bana bildu eta bakoitzak bere hizkuntzan hitz eginda elkar ulertzeko gai dira. Eskolan frantsesa eta alemana ere landu dituela gogoratu digu, baina soilik idatzi bat hartu eta gainetik ulertzeko kapaz dela.

"Eguraldia bezalako txikikeriengatik kexuan ibili izan naiz, baina hotzean pentsatuta konturatzen naiz zenbaterainoko zortea izan dugun hemen jaiotzeaz. Guk inongo meriturik egin gabe luxuzko gizarte bateko partaide gara". Jardun askotan erreferentzia izan litekeen herrialde batek, duda barik, beste askotan huts egingo du. Herrialde perfekturik ez da munduan. Alabaina, horrek ez du esan nahi batzuk besteak baino gehiago gerturatzen ez direnik egoera horretara. ■